

# PRODUKTUEN SEGURTASUNA

## Piercing-ak

ASMATU  
JOPUNTUAN. **ZURE**  
SEGURTASUNA  
DAGO JOKOAN

### Irakaslearen Gida Didaktikoa



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATEA  
ETA KULTURAREN  
DEPARTAMENTUEN BILKETA,  
GENERAL Y IZASMI



DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
DEL GOBIERNO VASCO



COMISIÓN EUROPEA

Kontsumitzailearen Hekuntza SAITEA Europako Kontsumitzaileen Eskola Koordinatzen da. Zerbitzu hauetako Auzitegiak Erdiestegiak hartzen ditu parte. (Frantzia, Alemania, Valentziako Erkartea, Katalua, Gaztela-Mentza, Euzko Autonomia Erkartea, Euzkoarentzako, Madril, Aragoi, Gaztela eta Leioa eta Errioxa) eta hori azaltzeko (Espainia, Portugal, Italia, Grezia eta Frantzia). Osasun eta Kontsumoko Ministerioaren (Portugalko Aragoi Nazionala eta Hezkuntza, Kultura eta Kirolen Ministerioaren) Errepubliko programen Zuzendakortza Nagusiak idazten jaso du.





1. Piercing bat jartzea erabaki baduzu, gai hipoalergikoaz egindakoak aukeratu behar dituzu, hau da, urreaz, zilarraz, titanioaz egindakoak, bai eta altzairu kirurgikoaz edo plastikoaz ere, esterilizatu ahal direnak alegia.
2. Infekzioak eta gaixotasunak ez kutsatzeko, joan zaitez lokalaren baldintzetan, lan tresna eta lanabesetan higiegi eta osasun arriskuak prebenitzeko arauak betetzen dituzten zentroetara, batez ere materialaren esterilizazioari eta erabilpen bakarreko lanabesen erabilerrari dagokienean. Egiaztatu ea zentroak jarduera horiek egiteko baimena daukan.
3. Larrua, mukosak edota beste ehundura batzuek zuzenean zeharkatzeko diren material guztiak beti esterilizatuak eta erabilpen bakarrekoak izango dira. Operazioan erabili eta, behin erabili eta botatzeko ez diren materialak esterilizatu behar dira eta poltsa edo ontzi esteriletan gorde behar dira berriro erabili artean.
4. Piercinga jartzera zoazenean ez duzu inolako gaixotasunik edo infekziorik eduki behar. Horrelakorik edukitzeak, marranta edo hagineta mina izanda ere, zure sistema immunologikoa ahulduta egotea dakar.
5. Eskatu behar duzu urraturik, erredurarik, garaurik, erreakzio alergikorik, ez gaixotasun dermatologikoren zantzurik ere ez dauzkan larruzaleko leku batean jartzeko piercinga.
6. Piercinga ezarri baino lehen txerto antitetanikoa jarrita edukitzea komeni zaizu. Gogoratu hau, garrantzitsua da eta: ezin izango duzu odol emaile izan piercinga jarri ondorengo urte osoan.
7. Gogora egiozu piercinga ezarriko dizun pertsonari zulatzen hasi aurretik larruzala garbitu eta desinfektatu behar dizula.
8. Gogoan eduki gorputzaren atal batzuetan, hala nola mingainean, zilborrean, titiburuetan, ezpainetan, genitaletan, piercingak errazago erauzi daitezkeela, igurtziengatik edo arropetan tratatuta gelditzeagatik. Gogora ezazu mukosa guneei (ahoa, sudurra, mingaina eta genitalak) infekzioak hartzeko joera edo erraztasun handiagoa ere badutela.
9. Piercinga ezarri ondoren, saihestu behar duzu zaurian zarakarrak egitea, profesionalak ematen dizkizun aholkuei kasu eginez. Zulaketaren ondoren, ez duzu igerilekuan edo itsasoan bainurik hartu behar zauria orbaindu arte.
10. Piercinga ezarri ondoren eska ezazu zerbitzuaren ordainketako faktura, garrantzitsua baita balizko erreklamazio baterako. Kontrola ezazu piercinga jarrita daukazun lekua eta medikuarengana berehala jo holako zantzuren baten aurrean: sukarra, gorritasuna edota handitzea, mina edo ondoezak.

#### AURKIBIDEA

1. SARRERA	>>> 1	4. JARDUERAK	>>> 3
2. HELBURUAK	>>> 2	5. EBALUATZEKO IRIZPIDEAK	>>> 6
3. EDUKIAK	>>> 2	6. INTERESEKO INFORMAZIOAK	>>> 6

Argitaratzailea: Kontsumitzailearen Hezkuntza Sarea  
<http://www.infoconsumo.es/eecred>

Egileak:

Nieves Álvarez Martín  
 Laguntzaileak

Leticia Ortíz Bedia, M<sup>a</sup> del Pilar González Echezarreta,  
 Ana Vallejo Echezarreta, Amaia Saenz, Ainhoa Sanz,  
 Nuria Vitoria, Esther Álvarez Fernández

Diseinua eta maketazioa:

M<sup>a</sup> Isabel Gómez Bedia  
 M<sup>a</sup> Luisa Lavín Solana

Ale-kopurua:

Autonomia Erkidego bakoitzerako koordinazioa:

Gonzalo Sánchez Moreno (Kantabria)  
 Rafael González del Busto (Asturias)  
 M<sup>a</sup> José López Ródenas (Valentiako Erkidegoa)  
 Esther Álvarez Fernández (Galizia)  
 Alejandro Salcedo Aznal (Gaztela-Mantxa )  
 Arrate Martínez de Guereñu (Euskal Herria)  
 Jesús Ramón Galán Quintanilla (Extremadura)  
 Susana Gil (Madril)  
 Francisca Pérez Jiménez (Aragoi)  
 Carmen Herrero Álvarez (Gaztela eta Leon)  
 Susana Conde Escorihuela (Errioxa)

Lege Gordailua:

Inprimaketa: J. Martínez S.L.



# I. SARRERA

Piercing-a (pierce aditzaren gerundioa, zeharkatu, zulatu, adierazten duena) eraztunak, belarritakoak edo altzairuzko barrak gorputza apaintzeko jartzea errazten duen azala zulatzea da. Piercing-a eraztunketa izenarekin ere esaten diote. Oro har, prozedura honen bitartez apaindu ohi dituzten guneak honakoak dira: zilborra, mingaina, belarriak, bularrak, kokotsa eta bekainak. Praktika hau, berez, oso zaharra da, baina azkeneko urteotan berrindatu da. Zerbitzu hauetan baliatzen direnei informazioa eman behar diegula badakigu, hori dela-eta, ikerketa dokumental zabala (mila dokumentu aztertu dituzte) eta premiazko inkesta erraz bat (12 eta 18 urte bitarteko mila pertsona inkestatu dituzte) egin ditugu ikusteko gazteek pentsatzen duten ongi informatuta daudela eta egitan horrela den egiztatzeko.

Ikerketa dokumentalaren emaitzek agerian utzi dute piercing-aren erabilera asko zabaldu dela herritarren artean, horrekin batera, gaixotasunak eta lesioak (ahoa eta hortzetan esaterako), infekzioak, alergiak eta azaleko gaitzen bestelako aldaera konplexuago batzuk ere ugaritu dira praktika hauek egiten dituzten herritar gazteen artean, guztira horien % 20ra irits daitekeela. Ikerketek argi eta garbi adierazten dute mota honetako arazo gehiago sortu direla piercing-ak eramaten dituzten artean tatuaiak eramaten dituzten artean baino. Gehien kezkatzen gaituena da praktika hauek B hepatitis, C hepatitis eta ihesarekin duten erlazioa. Kontuan hartu behar dugu C hepatitis duten kasuen % 20an, beraz gibebeko zirrosi bilakatzen dela eta kasu horien % 3 eta % 4ren artean edo gibebeko minbizi bilakatzen dela.

Ikerketaren emaitzek agerian utzi dute gazteen % 78ak pentsatzen duela ongi informatuta dagoela; hala ere, gehiago sakonduz gero, eta zehazkiago duten informazioari buruz, praktikan, informazio zabala duten gazteak % 12ra baino ez dira iristen. Hau da, inkestatu dituzten gazteen ia % 90ak ez du gai honi buruzko informazio egokirik eta, oraindik larriago dena, ez dira zerbitzu hau gaizki erabiltzeak ekar liezazkien kalteen jakitun.

Horrek guztiak agerian uzten du material hau behar-beharrezkoa dela, hau erabili ahal dute Kontsumitzailearen Hezkuntzako proiektuak garatzeko, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako azken ikasturteetako ikasgeletan..., bide batez, arloetako kurrikuluko edukiak landu ahal izango dituzte bere interesa pizten duen gai batean gazteak hezten ditugun bitartean, horrela, segurtasunez eta ongi informatuta daudela jardungo dute. Egokitzapen batzuk egin ondoren, proposatzen ditugun jarduera asko eta asko Batxilergoan eta helduei zuzendutako prestakuntza-jarduketan ere, hala araututako irakaskuntzaren barruan nola kanpoan, erabiltzeko balio izango dute.

12 eta 18 urte bitarteko ikasleak (hauei zuzentzen zaie materiala hain zuzen ere) iragaitzan edo dagoeneko nerabezaroaren lehendabiziko aldia zeharkatzen ari dira. Aldi hauetan bere gorputzean aldaketa fisiologikoak gertatzen dira, hauek, askotan, beldurtzen dituzte eta bere irudi eta bere buruarekin deseroso sentitzera eramaten dituzte. Garai honetan, afektibitatean, gizarte-harremanetan eta baloreetan ere aldaketa sakonak gertatzen dira. Ideien mundua erakargarritasun handiz ere azaltzen zaie eta mundu horretan bertan beren berezko baloreak eta pertsona-jarrerak garatuko dira. Adimen-aldaketek izaera abstraktuko pentsamenduan aurrera egitea errazten diete eta honek eragiketa logiko-formalak egitea ahalbidetzen die, oso erabilgarria dena arazoak konpontzerakoan. Arrazoitzeko, zenbait aukera aztertzeko eta hipotesiak aurkeztuz eta egiaztatuz ikertzeko gaitasunaren garapena hastea egingarria da. Kontzeptu ekonomikoak ulertzen dituzte eta gizartea zerbait dinamikotzat ikusten dute. Pertsonak jarduten duten arrazoiak ulertu behar dituzte. Harreman edo erlazio anizkunak izan ditzakete eta gertaera bakar batek hainbat jatorri edo kausa izan ditzakeela eta kausak elkarren artean erlazionatuta egon daitezkeela ulertzeko gauza dira. Oso-oso kritikoak dira, esperientziak, sentipenak, sentimenduak,... trukatu behar dituzte. Taldeak eragin handia du norbanakoarengan.

Momentu honek berebiziko garrantzia du esku artean dugun gaia Bigarren Hezkuntzan lantzeko, izan ere, oro har, garai honetan erabakitzen baitute piercing bat jarri nahi duten. Helduen prestakuntzan ere gazteak adin-nagusitasunera iritsi arte familiek duten ardura ezagutu behar dutela aintzat hartu behar dute. Honako materiala ekarpen zabala, irekia da. Irakasleek erabilgarriak izango diren ideiak eta tresnak aurkitu ahal dituzte gelako programazioetarako: helburuak, edukiak, jarduerak, irtenbideak, ebaluatzeko irizpideak, agiriak,... dituztenak. Material honen osagarri ikaslearen koaderno egongo da, bertan hemen proposatu ditugun jarduerak garatzeko erabilgarriak diren fitxak eta bere kabuz egin ahal izango dituzten denbora-pasak sartuko dira.



## 2. HELBURUAK

### HELBURU NAGUSIAK:

- Gazte guztiei, oro har, eta, zehazki, gorputzean aldaketaren bat egin nahi dutenei berau segurtasun osoz egin ahal izateko beharrezko diren ezagupenak ematea.

### HELBURU ZEHATZAK:

- Piercing bat ipintzeko erabiltzen dituzten teknikak eta horietako bakoitzean eskatu behar duten segurtasuna ezagutzea.
- Betirako gorputz-aldaketa batek izan litzakeen ondorioak ezagutzea, bai osasun-garbitasun mailan nola gizarte mailan.
- Piercing bat gorputzean ipintzean ditugun arriskuen berri izatea eta egin baino lehen ongi hausnartu behar dutela kontuan izatea.

## 3. EDUKIAK

### KONTZEPTUALAK:

- Piercing-ei buruzko ezagutza historikoa: zenbait talde etnikoko alderdi kulturalak eta Mendebaldeko alderdi sozial eta kulturalak.
- Piercing bat ipintzerakoan erabiltzen dituzten teknikak; piercing-motak eta erabiltzen dituzten materialak.
- Segurtasun-baldintzak: lokaletakoak, profesionalak eta aplikatu beharreko araudia.
- Norberaren Autonomia Erkidegoan aplikagarri den indarreango legedia ezagutzea.

### PROZEDURAZKOAK:

- Piercing-aren antropologiako azterketa historian zehar.
- Erabiltzen dituzten marrazkiak aztertu eta horien kopia egitea eta marrazkiok duten esanahi kulturala. Marrazki berriak sortzea.
- Sexu eta gizarte-eginkizunaren araberrako aldaketak aztertzea.
- Informazioa eskuratzeko hainbat iturritara jotzea: liburuak, bideoak, prentsa, internet, etab.
- Gorputz-aldaketari buruz dauden gizarte-ikusmoldeen gaineko hipotesiak plazaratzea.
- Tailer praktikoak.

### JARRERAZKOAK:

- Piercing-ak kritikoki baloratzea gizarte eta segurtasunaren ikuspuntutik begiratuta.
- Sentiberak izatea gureak ez diren gizarte- eta kultura-egoeren aurrean.
- Alderdi ekonomikoan aldean segurtasun- eta osasun-alderdiak gehiago baloratzea.
- Erabakiak ongi hausnartu ondoren hartzea oso garrantzitsua dela baloratzea.

**EZAGUTZA-ALORREKIN**

Geografia - Historia eta  
Gizarte-zientziak  
Hizkuntza eta Literatura  
Zientzien alorra: Fisika,  
Kimika  
Arte eta Plastika-  
Hezkuntza

**GAIAREN ERLAZIOAK**

Osasunerako  
Hezkuntza  
Berdintasunerako  
Hezkuntza  
Kultur arteko  
Hezkuntza eta  
Elkartasuna

**BESTELAKO ZEHARKAKO  
BATZUEKIN**





Gai honetan, ikasgelako lana egiteko oinarritu beharko ginateke ikasleek alde aurretik dituzten ideiak zalantzan jartzen, izan ere, hasieran dituzten ikuskerak zalantzan jartzen direnean bakarrik ezagupen berria sortzeko gauza baitira.

Hasteko, mahai gainean piercing-aren aldeko eta aurkako ideiak, hainbat euskarritako testuak (talde handian edo txikian) aztertzea... jar ditzakegu. Hori metodologiaren parte garrantzitsua izan liteke.

## 4. JARDUERAK

Jarraian, zenbait jarduera aurkeztuko ditugu ikasleek piercing-aren gaia sakonean landu ahal izan dezaten. Hemen, bai jarduerak nola soluzioak topatuko dituzu. Ikaslearen koadernoan bere kabuz egin ditzaketen denbora-pasen soluzioak bakarrik ageri dira.

### 1. JARDUERA: PIERCING-AK HISTORIAN ZEHAR

«Intereseko Informazioak» delakoan (6. atala), piercing-en eginkizuna Historian zehar, horien jatorriak, bilakaera, kultura eta garaien arabera erabiltzeko arrazoiak zein izan diren... aski zabal garatu dituzte. Ikaslearen koadernoan jarduera hau garatzeko erabilgarriak diren bi fitxa sartzen dira (1. fitxa eta 2. fitxa). Tresna hauen bidez (bestelako iturrietan ere informazio gehiago bilatu ahal dute, interneten adibidez), piercing-aren historia denbora, leku, garai, kultura, motibazio, eta abarren zehar eraiki dezakegu. Ondoren, errealitate hori gaur egungo garaiarekin alderatu beharko lukete. Egungo garaia dagokionez, komunikabideetan agertzen diren informazioak bil genitzake (prentsan, gazteentzako aldizkarietan, Interneten<sup>1</sup>, telebistan, etab.). Oso garrantzitsua da eztabaida eta partehartzea sustatzea, garai bakoitzean piercing-a zergatik erabiltzen zuten bilatzea, arrazoiak aldatu dituztela pentsatzen ote duten, garai honetan eta bestelakoetan dauden garbitasun-baldintzak, zein kasutan uste duten zentzu handiagoa duela gorputza zulatzea. Hasieran «ideia-zurrumbilo» bat egitea, eta bukaeran munduko mapa eta kultura eta denboraren mapa bana egitea.

### 2. FITXAREN SOLUZIOA IKASLEAREN KOADERNOA: IKERTU IRUDI HAUEK

1. irudia	<i>Borneo eta Afrika Ekialdeko zenbait tributako jirafa-emakumea.</i>
2. irudia	<i>Sudaneko Hego-ekialdeko Nudak.</i>
3. irudia	<i>Burua zapalduta duten umeak, antzinako Egiptoren garaietatik.</i>
4. irudia	<i>Japoniako emakumeek duten oinen deformazioa.</i>
5. irudia	<i>Eskarifikazioa Afrikako tribu batzuetan.</i>
6. irudia	<i>Tatuaiak kultura askotan (japoniarrak, esate baterako).</i>

<sup>1</sup> Gai honen inguruko informazioa duten web orri batzuk: [www.lescorpion.8m.com/piercing](http://www.lescorpion.8m.com/piercing), <http://www.alvago.com.ar/especial/piercing/> y <http://personales.com/espana/pamplona/tatoos/historiapiercing.htm>



## I. FITXAREN SOLUZIOA IKASLEAREN KOADERNOA: PIERCING-AK HISTORIAN ZEHAR

Tokia	Nor zulatzen zen?	Zer zulaketa motak?	Zergatik egiten zuten?
Egipto	Faraoiak	Zilborra	Erregetzaren ikurra
Erroma	Zenturioiak	Titimuturrak	Gizentasunaren ikurra
Antzinako Europa	Nekazariak eta artzainak	Belarriak	Gaixotasun eta zoritxarren aurkako babes-ezkutua
Britainia Handia (Garai Victoriarra)	Goi-mailako gizartearen emakumeak	Titimuturrak	Bularren tamaina handitzea
India	Gazteak	Sudurra	Ezkondutako aurreko tradizioa
Polinesia, Afrika, India...	Talde etnikoak	Gorputza	Defentsa moduan
Tribu arabiarren bizi diren guneak	Gazteak	Genitalak (Hafada)	Haurtzarotik helduarora igarotzea
Mendebaldeko Europa	Emakumeak	Genitalak	Kastitate- metodoa

## 2. JARDUERA: ETA ZUK, ZE AHOLKU EMATEN DIDAZU?

Jarduera honetan piercing bat jarri nahi duten baina zalantzak dituzten lau pertsona zehatzen kasua ikasleei aurkeztu zaie. Lagundu behar diete eta horretarako egokien irizten dioten aholkua eman behar diete. Proposatutako kasuak ikaslearen materialaren 3. fitxan ageri dira. Jarraian, kasu bakoitzean eman daitezkeen balizko erantzunak sartu ditugu.

### 3. FITXAREN ERANTZUN ZUZENAK:

#### LEHEN KASUKO ERANTZUNA:

Piercing-a jarri ondoren, eta orbaindu arte, hainbat gauza egin behar dituzte zornatu dadin ekiditeko asmoz. Onena izaten da Profesionalak emandako aholkuei jarraitzea. Piercing-a jarri ondorengo zaintzak eta garbi mantentzea zure ardura izango da eta hauek eragin handia izango dute zauria ongi ordain dakizun. Sudurra operatuta izateak eragina izan lezakeen, onena operazioa egin zizun sendagilearengana jotzea eta berari galdetzea izango da. Eratzuna jarriko dizuna ere galde egin diezaiokizu, profesional ona baldin bada zalantza guztiak argituko dizkizu.

#### HIRUGARREN KASUKO ERANTZUNA:

Zeure burua gehien identifikatua sentitzen duzun apaindura aukeratu behar duzu, berritsuek pentsatzen dutenak ez dizu axola behar, zure osasunak eta segurtasunak eta zure familiak pentsatzen duenak baizik. Piercing-aren kokortxoari dagokionez, onena sendagilearekin edo eratzuna jarri dizunarekin hitz egitea izango da horren kasua eta jarraitu beharreko zainketak adieraz diezazkizuten.

#### BIGARREN KASUKO ERANTZUNA:

Mingainean piercing-a jartzeak hainbat arrisku izan dezake: hala nola mingainaren azpitik doan arteria eta nerbioa kaltetuta gertatzea eta mingainaren punta sorgortzea. Halaber, kontu handiz ibili behar duzu eta alkohola edatea, pikantea, tabakoa, txiklea eta ahoko sexua saihestu behar dituzu. Jan, edan edo erre ondoren piercing-a garbitu eta antiseptiko bat aplikatu behar duzu. Hasieran mingaina handitzen bazaizu, ez arduratu normala da-eta. Jarri izotza edo hanturaren aurkako hartu, baina berdin jarraituz gero sendagilearengana jo behar duzu.

#### LAUGARREN KASUKO ERANTZUNA:

Zure gorputzak ez badu onartzen, izan daiteke jarri zenuen apaindura eginda dagoen materiala dela-eta. Ze materialez eginda dagoen jakin ezazu ikusteko zer den errefusa eragiten duena. Eta gogoan izan, apaindurak altzairu kirurgikozkoak, 9tik 14 kilate bitarteko urrezkoak edo titaniozkoak izan behar dira.

## 3. JARDUERA: NOLA AUKERATU ERAZTUN-EGILE ON BAT



Oso jarduera sotila edo sinplea da. Piercing bat ipintzeko erabakia hartzerakoan kontuan hartu beharreko alderdiekin lotutako zenbait baieztapen ikasleei aurkez diezaiogu. Horietatik zuzenak direnak hautatu behar dituzte (ikus ikaslearen materialaren 4. fitxa).

#### IKASLEAREN MATERIALAREN 4. FITXAREN ERANTZUN ZUZENAK:

- Lokala ongi garbituta izatea (esterilizazioa).
- Galderei argi eta garbi erantzutea.
- Kalitatezko bitxiak erabiltzea (14 kilateko urrea, altzairu kirurgikoa edo titanioa).
- Latexezko eskularruak erabiltzea.
- Anestesikoak erabiliz zulatzea saihestu behar du (honek ehuna handitzea, alde horretan linfa gehiegi egotea eta orratza sos sakon eta okertsu sartzea ekar ditzakeelako, gainera produktu anestesikoekiko alergia-erreakzioak ere gerta daitezke).
- Ez du zulatu behar belarrietarako pistola baten bidez edo kateter baten bidez edo egokia ez den beste edozein tresnaren bidez.

#### 4. JARDUERA: PIERCING-AREN KONPARAZIO-AZTERKETA

Jarduera hau ikasitakoa ebaluatzeko pentsatuta dago. Horretarako, ikasleek ikaslearen materialaren 5. fitxan planteatzen den laukia osatu beharko dute. Bertan, gai honi buruzko alderdi garrantzitsuak laburbilduta ageri dira: piercing-motak, non ipini behar dituzten, eginda egon behar diren materialak, kasu bakoitzean orbaintzeko behar duten denbora, aldi honetan zehar kontutan hartu beharreko zainketak eta sor daitezkeen balizko zailtasunak.

#### IKASLEAREN MATERIALAREN 5. FITXAREN ERANTZUN ZUZENAK:

Piercing-motak	Aurpegiko piercing-a	Ahoko piercing-a	Gorputzeko piercing-a	Genitaletako piercing-a
<b>Ipintzeko tokia</b>	Belarria, sudurra, bekaina, begitartea...	ezpainak, mingaina,...	Titimuturra, zilborra,...	zakila,klitoria
<b>Fabrikatuta dauden materiala</b>	Altzairu kirurgikoa, 14 edo 16 kilateko urrea edo titanioa.	Altzairu kirurgikoa, 14 edo 16 kilateko urrea edo titanioa.	Altzairu kirurgikoa, 14 edo 16 kilateko urrea edo titanioa.	Altzairu kirurgikoa, 14 edo 16 kilateko urrea edo titanioa.
<b>Orbaintzeko denbora (aste edo hilabetetan)</b>	Sudurra eta bekainak: 6 eta 8 aste bitartean. Belarria: 4 eta 12 Begotartea: 6 eta 12	Mingaina: 4 eta 6 aste bitartean. Ezpaina: 6 eta 8	6 eta 8 aste bitartean	4 aste eta 6 hilabete bitartean, sakoneraren arabera
<b>Orbaintzeko denboran izan beharreko zainketak</b>	Urarekin nahastutako gatzarekin garbitu, piercing-a kontuz mugitzen duzuela. Egunean bi aldiz, bi hilabetetan.	Janarien ondoren bakterien aurkako ahoaren irakuzketa egin behar duzue, ondoren urarekin garbitu. Egunean hiru aldiz. 4 eta 8 aste bitartean.	Xaboi neutroarekin garbitu. Urarekin ongi garbitu, piercing-a mugitzen duzula. Egunean bi aldiz, 6 eta 8 aste bitartean.	Garbitu xaboi neutroarekin eta urarekin ongi garbitu xaboi-hondarrak gelditzeagatik sor litezkeen narritadurak. Egunean 3 aldiz, 1 eta 2 hilabete bitartean.
<b>Balizko zailtasunak (nahiz eta establezimenduek egokiak diren baldintzak izan)<sup>2</sup></b>	Alergiak, orbainak, odoljarioak, zornadurak.	Alergiak, ahoko alterazioak, orbainak, odoljarioak, urratuak, zornadura, traumatismoak.	Alergiak, orbainak, odoljarioak, zornadurak, traumatismoak edo urratuak.	Alergiak, orbainak, odoljarioak, zornadurak, traumatismoak edo urratuak.

#### JARDUERAK EGITEKO BESTELAKO PROPOSAMENAK

##### I. PROPOSAMENA: ESTABLEZIMENDUEN KONPARAZIO-ANALISIA

Ikerketa-lana proposatzen dute, horrela, ikasleek mundu honetara hurbiltzeko eta bere kabuz ezagutzeko aukera izango dute. Ikasleek bere herrian dauden piercing-ak ipintzen dituzten lokalak bisitatuko dituzte eta behaketen emaitzak hartu eta behatuko dituzte: osasun- eta higiene-baldintzak, arau orokorrak betetzen ote dituzten (edo zehatzak, zuen Autonomia Erkidegoan arautzen duten legeak egonez gero), behin erabiltzeko eta esteril den materiala erabiltzen duen (eskularruak, orratzak,...). Piercing-etan erabiltzen dituzten materialez informazioa eskuratu ahal dute, prezioez galdetu ahal dute, etab.

<sup>2</sup> Baldintza egokiak ez baldin badituzte osasun-arazoak askoz larriagoak izan daitezke: HIESA, B eta C Hepatitis, etab.



Jarduera egiteko bizpahiru ikasleko taldeak antola ditzakete, hauek informazioa eskatuko dute establezimendu hauetako balizko bezeroak izango bailiran. Hirian dauden establezimendu kopuruaren arabera lan egiteko modua ezberdina izango da: asko baldin badaude talde bakoitza establezimendu ezberdinetara joango da; horrela ez bada talde guztiak lokal berberetara joango dira. Bisitak egin ondoren komunean jarriko dute eskuratutako informazioa, horrela konparazio-analisia osatuko dute eta bisitatutako establezimendu guztietan onena zein den erabakiko dute. Ikerketa honen emaitzak eskualdeko Kontsumo-zerbitzura, Kontsumitzaileen Elkartera eta KIUBra bidali ahal izango dituzte.

## 2. PROPOSAMENA: PIERCING-AREN ARRISKUAK EZAGUTZEN DITUGU?

Kontua da Ikerketa-lana egitea eta ikustea piercing bat jartzeak dakarrenaren jakitun garen. Ikasleek bere ikaskideak, lagunak edo senideak elkarrizketatu ditzakete eta horrela ikusi ahal izango dute piercing bat jartzeak berarekin dituen arriskuak zenbateraino ezagutzen ditugun. Inkestak egin ondoren, datuak tauletan jarriko dituzte eta ondorioak aterako dituzte. Horren ostean, eztabaida bat egingo dute eta beren ikaskideei informatzeko irtenbideak proposatuko dituzte. Emaitzak ere ikasgelako gainontzeko lagunei jakinaraz diezazkiekete. Jarduera hau bukatuko dute gazte eta bere senideei zuzendutako informazio-jarduera bat egiten dutela erabakiak jakinaren gainean daudela har ditzatela. Ikaslearen materialaren eranskinean inkestaren eredu bat dute.

## 5. EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

4. jarduera tresna ona izan daiteke egindako jarduera guztiak ebaluatzeko. Hala ere, irakasle bakoitzak ebaluatzeko bere berezko tresnak diseinatu eta zirriborratu ahal ditu:

- Behaketarako ereduak.
- Ikasleek, beste irakasle batzuek, familiek, etab. erantzun beharreko bestelako galdetegiak, hauei buruzkoak direnak:
  - *planteamenduen egokitasuna.*
  - *plangintza: ikerkuntza, tenporalizazioa, erabilitako materialak.*
  - *ikasleen egokitzapena: interesa, ulermena, manipulatzeko erraztasuna.*
- Bestelako jarduera eta tailer praktikoak.

## 6. INTERESEKO INFORMAZIOAK

### 6.1.- PIERCING-AREN HISTORIA

Ezin dugu zehatz-mehatz esan piercing-a gizateriaren Historiaren zein momentutan agertu zen. Egipton, zilborrean eraztun bat izatea erregetzaren ikurra zen. Zenturoien Erroman, Zesarren guardiako kide guztiek, gizontasunaren ikurra bezala, titimuturretan eraztunak eramaten zituzten. Antzineko Europako nekazari zein artzainek uste zuten belarritakoak izan litzaketen gaixotasunen eta mota guztietako zorigaitzen aurkako ezkutuak zirela. Garai Victoriarrean goi-mailako gizarteko emakumeek eraztunak ipintzen zituzten titimuturretan tamaina handitzeko asmoz.

Indian tradizioa da emakumeen sudurrean txikitatik eraztuna ipintzea; tradizio hori amonek egiten dute, hauek bilobei eraztuna jarri behar diete ezkondu baino lehen. Piercing-a (edo belarritakoa) bi sudur-hobien artean jartzen dutenean, Septum esaten diote. Gure kulturen neskei ere jaiotzean eraztuna jartzeko ohitura dago, kasu honetan piercing-ari belarritakoa esaten diote eta bi belarritakoen beheko gingilean ipintzen dute.





Gaur egun ere hain bat talde etnikok gorputzaren atal ezberdinetan eraztunak jartzen dituzte, hala nola Polinesiar, Afrikan, Indian... eta abarreen. Hasiera batean, defentsako funtzioa zuen eramaten zuenari itxura oldarkorra ematen baitzion. Egun, xede estetikoagoa du, gizarte, tribu,...eta abarren taldeak bereiztea ahalbidetzen duelarik.

Gaur egun ere Brasileko talde etniko batzuetan ezpainaren azpian ebaki txiki bat egiteko ohitura dute, hau pixkanaka handitzen joango da zirkulu itxurako pieza bat bertan jartzean, honek ezpaina modu nabarmenean aldatuko du. Praktika hau Afrikako tribu batzuetan egiten dute, batez ere ezkongabe dauden emakumeen artean, hauek ezpaina handitzeko ohitura dute ezkon-hitza eman edo ezkontza egiterakoan. «Handitze» hauek belarrien gingiletan ere egiten dituzte.

Genitaletan eraztunak jartzea ere oso praktika zaharra da, ia beti errituala izan ohi da, hala nola Ampallang Indiako Ozeanoaren herri indigenetan, edo Hafada arabiarren tribu batzuen artean. Hafada deritzotena, helduarora iristen diren arabiar batzuentzat harro egoteko arrazoia da. Horren bidez, gizonetzkoak diren kide guztiek, hala nola senideek, lagunek,...etab., gizon bilakatzen den umeari inimiziazko jai handia prestatzen diote (errito moduan) eta oparrietako bat piercing bat da, zehazki eraztun bat izaten da eta zeremonia egiten dutenean eskrotoaren ezkerreko aldean, barrabilen artean eta zakilaren oinarrian jartzen dute. Uste dute hau egin ondoren ez direla haurtzaroan jaitsi ziren lekura berriz itzuliko eta agerian uzten du gaztea praktika hau egiten duenetik aurrera eta betiko gizona dela. Mendebaldeko Europan, zenbait garaietan genitaletan eraztuna ipintzeko ohitura egon zen eta xede ezberdinak zituen; kastitate-metodo gisa, edo XIX. mendean zehar praka estuetan hankari itsatsitako genitalak jasotzeko. Trentoko Kontziliotik aurrera elkarte erlijioso batzuek genitaleko piercing-a erabiltzen zuten kastitate-metodo bezala.

XVII. mendean uste zuten belarrian metalezko tira bat jartzeak propietate terapeutikoak zituela eta ezkerreko gingilean ipiniz gero demonioak beren gorputzetan sartzerik ez zuela izango. Atsegina mitologikoki aurkitzeko mekanismo moduan, izaki eta naturaren ahalmena, estetika-gai bezala, edo erlijio-arrazoiak direla-eta. Pentsatu izan dute zulaketak eginez norbanakoak bere gorputzaren eta bere itxuraren kontrola hartzen duela.

## 6.2. SEGURTASUNERAKO DEKALOGOA PIERCING BAT JARTZEKO PROZESUAN

### 1.- ERABAKIA HARTZEA

Aurreneko urratsa erabakia hartzea da, hori gaur egun ez da sobera zaila gizarteak onartzen duen gauza bat izatera pasatu delako. Hori dela-eta, piercing-ak jartzen dituzten zentroetatik pertsona anitz igarotzen dira, adina, kultura, filosofia edo sinesmenak direnak direla. Baina erabakia hartzean arras garrantzitsua da berau arinegi ez hartzea. adin txikikoak diren gazteek jakin behar dute ezin dutela piercing-a jarri gurasoen baimena ez baldin badute, hauek nortasun agiria dutela lagundu beharko diete eta eraztuna jartzea baimentzen dutela adierazten duen agiria sinatu beharko dute.

### 2.- PIERCING-A JARRI BEHAR DUTEN ATALA EDO GUNEA HAUTATZEA

Aukera pertsona bakoitzarena da (adin txikikoak izatekotan, gurasoena ere bada).


Atal hauetan jar dezakete eraztuna:

- |                       |                 |                                   |
|-----------------------|-----------------|-----------------------------------|
| ■ Belarri-gingiletan  | ■ Ezpainean     | ■ Mingainean                      |
| ■ Belarri-kartilagoan | ■ Zilborrean    | ■ Genitaletan                     |
| ■ Bekainean           | ■ Titimuturrean | ■ Sudurraren barnealdean (Septum) |



### 3.- APAINDURA HAUTATZEA

Merkatuan dauden piercing-ereduak asko dira. Izan dezaketen itxura ipini behar dituzten gunearen araberakoa izango da. Jarraian gehien erabiltzen dituzten ereduen adibide batzuk gaineratu ditugu, ipintzeko lekuaren arabera sailkatuta.



### 4.- ESTABLEZIMENDUA ETA PROFESIONALA ONGI AUKERATZEKO

#### a.- Lokalak

- Garbiak eta desinfektatuak (gutxienez egunean behin).
- Jardueraz kanpoko pertsona eta animaliak sartzea debekatuta dago.
- Feria, Biltzar edo bestelako gertaerak direla-eta finkoak ez diren instalazioetan piercing-ak jartzen dituztenean, hauek ohizko establezimenduek bete behar dituzten baldintza berberak bete behar dituzte.

#### b.- Ekipoak eta tresneria

- Garbiak, desinfektatuak eta zaintze-egoera onean.
- Bai tresneria (orrazak, xiringak,...) nola apaintzeko erabiltako objektuak (pigmentuak,...) behin erabiltzekoak edo esterilizatu daitezkeenak izango dira.
- Establezimendu guztietan botikin bana egongo da lehen sorospenak egiteko.

#### c.- Profesionalak

- Arropa garbia eta bere lanerako espezifikoa dena erabili behar dute, berau aldatuko dute odolaz edota gorputz-fluidoez zikintzen den guztietan.
- Prestakuntza egokia izan behar du, prestakuntza-ikastaroak gaindituak izan beharko dituela (erkidegoaren arabera iraupena ezberdina izaten da). Ikastaro horiek homologatuak izango dira eta teoria eta praktika izango dituzte.
- B Hepatitisaren eta Tetanoen aurkako txertoa jarrita izan behar dute.
- Higiene-arauak bete behar dituzte:
  - Edozein praktika hasi eta bukatu baino lehen eskuak ura eta xaboiarekin garbitu behar dituzte.
  - Behin bakarrik erabiltzeko eskularruak erabili behar dituzte. Oro har, latexeko eskularruak izaten dira.
  - Ebakiak, zauriak, erredurak edo bestelako lesioak estalita eduki behar dituzte.
  - Kutsatu daitekeen materiala esterilizatu, desinfektatu edo ordezkatu behar dute.
- Erabiltzaileari, erraz ulertzeko moduan eta idatziz praktika hauen gorabehera guztien berri eman behar diote, eta horri buruz jakinarazten duten agiri berean bere sinadura jartzeko eskatu beharko diote.
- Gurasoekin ez doazen adin txikikoei ezin diete eraztunik ipini, hauek berriaz sinatu behar dute adieraziko duten gorputz-atalean eraztuna jartzeko baimena ematen dutela adierazten dutela.



#### d.- Apaindurak:

Materiak hauetakoak izan daitezke:

- **Altzairu kirurgikoa (ezberdina da jarri behar duten gorputz-atalaren arabera).**
- **Urrea (14 edo 16 kilatekoak).**
- **Titanioa.**

### 5.- ORDAINAGIRIA ESKATZEA

Lokala utzi baino lehen ez zaio ahaztu behar jasotako zerbitzuaren ordainagiri xehatua eskatzea. Ordainagiriak zerbitzua egiaztatzen du, kontratuarena egiten du; oso garrantzitsua da edozein erreklamazio egiterakoan.

### 6.- IZAN BEHARREKO ZAINKETAK PIERCING-A IPINI ONDOREN

Piercing guztiak oso ongi garbitu behar dituzte orbaintzeko denboran. Baina kontutan hartu behar dute aldi honetan piercing-a ukitu baino lehen eskuak oso ongi garbitu behar dituztela horretarako xaboi neutroa erabiltzen dutela. Garrantzitsua da denbora guztian ukitzen eta zirikatzen ez ibiltzea, horrela, garbitu behar denean bakarri ukitu beharko dute; horrela narritadurak eta infekzioak izatea saihestuko dute.

Hauek dira piercing mota bakoitzean egin beharreko zainketak:

■ **Aurpegiko piercing-ak (belarria, sudurra, bekaina, etab.):** Urarekin nahastutako itsas gatz pixka batekin garbitu behar dituzue. ur berotan bustitako makilatxo baten bidez leunki kendu piercing-ean sor litekeen edozein zarakarra eta agente garbigailu batekin uretan pasatu. Mugitu, kontu handiz, ura piercing-aren barruan sar dadin.

Orbaintzeko aldirako aholku interesgarri bat: onena orbaintzeko prozesuan zehar ez makilatzea izaten da. Garbiketa ze maiztasunez eta noiz arte egin behar da? Nahikoa da egunean pare bat aldiz egiten bada, bi hilabetetan zehar.



■ **Ahoko piercing-ak (mingaina, ezpainak, etab.):** Zauria orbaintzen den bitartean, janari pikanteak eta edari alkoholduak hartzea saihestu beharra dago. Gomendatzen dute mantso-mantso hitz egitea eta aho-sexua egitea ekiditea. Astebetean ohizko bizimodua egiten has daiteke. Lau edo sei aste bitarteko aldian zehar, barneko piercing-ak jan, edan edo erre ondoren garbitu beharko dituzte. Hobe da txiklerik ez jatea. Bakterien aurkako ahoko likido bat, zaporerik ez duena, erabil dezakete irakuzteko. Nahastutako itsas gatzarekin ere gargarak egin ditzakete.

Zainketa berezi hauek ze maiztasunez eta noiz arte egin beharko ditugu?: mingaineko piercing-ei dagokienez, lau eta sei aste bitartean, ezpainetakoei dagokienez, egunean hirutan sei edo zortzi aste bitartean.

Erabilgarria izan daitekeen aholku bat. Mingaina handitzen bada (beti ez da zertan gertaturik), ahoan izotz bat sartuz gero, oro har, hantura arinduko da.





■ **Body piercing-ak** (*titimuturra, zilborra, etab.*): Piercing-a eta bere ingurua kontu handiz garbitu behar da xaboi neutroaren bidez. Bertan sor litekeen edozein zarakarra kontu handiz busti eta kendu behar duzue. Jiratu eraztuna xaboa sar dadin, irakuztean berriz jiratu xaboi osoa irten dadin. Itsas gatzaz garbitzea oso ona izaten da sendaketan eragozpenak saiheste aldera. Zainketa berezi hauek ze maiztasunez eta noiz arte egin behar ditugu?: egunean bi aldiz, sei edo zortzi aste bitartean.



■ **Genitaletako piercing-ak:** Xaboa uretan kentzerakoan kontu handiz ibili behar da, izan ere, xaboiak gizonaren gernubidea eta emakumearen bagina narritatu ahal baititu. Emakumeek bereziki zaindu behar dute xaboa baginaren barruan sar ez dadin, infekzioak eragin baititzake. Xaboa neutroa izan behar da. Piercing-ak harremanak izan baino lehen garbitu beharrekoak dira. Orbaindu eta zaindu arte ez da gomendagarriak sexu-harremanak izatea; ahoko edozein harremana saihestu behar dute aldi honetan zehar; preserbatiboa erabiltzea beti da beharrezkoa. Gogoan izan spermizida eta lubrikatzaileek narritadurak eragin ditzaketela.

Zainketa berezi hauek ze maiztasunez eta noiz arte egin behar ditugu?: egunean hiru aldiz, hilabete edo bi hilabete bitartean, dena den, batzuek ia sei hilabete behar izaten dituzte zaintzeko.

Oro har, gogorarazi behar dugu piercing bat ipintzen dutenak ez direla igerilekuan edo itsasoan bainatu behar orbaintzeko prozesua bukatu arte. Hau da, bere gorputza zulatu nahi dutenek hobe lukete udan ez egitea.

## **7.- PIERCING-MOTAREN ARABERA ZAURI BATEK ORBAINTEZKO BEHAR DUEN DENBORA**

Pertsona guztiak ez dira berdinak, hortaz, zauriek ere ez dute berdin orbaintzen, hala ere, batez bestekoa, jartzen duten piercing-aren arabera, honakoa da:

**Aurpegiko piercing-en orbaintzeko denbora aldatzen dira:**

- **belarria (kartilagoaren aldean): zortzi eta hamabi aste bitartean**
- **gingila: lau eta sei aste bitartean**
- **bekaina: sei eta zortzi aste bitartean**
- **begitartea: sei eta hamabi aste bitartean**
- **sudur-hobiak: sei eta zortzi aste bitartean**

**Ahoko piercing-ei dagokienez, orbaintzeko denbora ere aldatzen da:**

- **mingaina: lau eta sei aste bitartean**
- **ezpaina: sei eta zortzi aste bitartean**

**Genitaletako piercing-en orbaintze-denbora horien sakoneraren arabera aldatzen da, berau, oro har, lau eta sei aste bitartekoa izaten da; sakonera gehien dutenek, aldiz, hiru eta sei hilabete bitartean behar izaten dituzte orbaintzeko.**

**Gorputzeko gainerako piercing-ei dagokienez; hauen orbaintze-denbora sei eta zortzi aste bitartekoa izaten da.**



## 8.- PIERCING BAT IPINTZEKOTAN DAUDEN ARRISKUAK

- **Alergiak:** Erabilitako materialak ez baldin badira egokiak. Alergia zarakarra bezala agertu ohi da.
- **Ahoaren alterazioak:** Ahoan piercing bat jartzen dugunean, mastekatzeko zailtasunak, hortz-hausketak, listua sortzerakoan aldaketak, dastamena galtzea eta mingaina sorgortuta ere gerta daitezke.
- **Orbainak:** piercing-ak jartzen dituen pertsonaren profesionaltasunaren arabera, emaitza espero ez duguna izan daiteke, estetikaren aurkakoak izan litezkeen orbainak geratzen direla.
- **Odoljarioak:** Odol-hodien asko irrigatzen duten alde batean piercing bat ipintzekotan, odoljarioak gerta daitezke kontu handiz ibili ezean.
- **Infekzioak:** Esterilizazio-neurriak egokiak ez baldin badira edo esterilizatu ezean sor daitezke. Tokiko infekzio bat gerta daiteke (kasuen % 10 eta 20 bitartean), hala nola, birus bat, herpes bat edo piercing-a jarri duten alderdian papiloma bat agertzea, edo bestela, B edo C hepatitisia edo Ihesa bezalako infekzio orokortua.
- **Traumatismoak edo urratuak:** Gorputzaren alderdi batzuk oso sentiberak dira eta gainerakoek baino igurtzi gehiago izan ditzakete (mingaina, titimuturrak, zilborra, ezpainak), hori dela-eta, alde hauetako batean piercing bat jarriz gero arrisku gehiago daude (nahi gabe kentzekoa esaterako) eta errazagoa da traumatismoak eragitea.

## 9.- PREBENTZIOA ARRAS GARRANTZITSUA DA

Oso garrantzitsua da:

1. Piercing bat jartzeko asmoa izanez gero, tetanosaren aurkako txertoa jarrita izatea gomendatzen dute.
2. Piercing jartzeko erabili behar duten material guztia, aurretik esterilizatu behar dute edo, bestela, behin bakarrik erabiltzeko izan beharko da.
3. Objektuaren materiala Altzairu kirurgikoa edo 14 edo 16 kilateko urrezkoa edo titanioa izan behar da, eta esterilizatuta egon behar da, esterilizatuta dagoela ez baldin bada kizu hobe da badaezpada berriz esterilizatzea.
4. Piercing-ak jartzen dituen profesionalak eskularruak erabili behar ditu, horrela, gaixotasunak edo infekzioak kutsatzea saihestuko da.
5. Zulaketa ez dute inolaz ere pistolaren bidez egin. Ez da hain segurua pistolak esterilizatzea ez delako hain eraginkorra.
6. Piercing-a jarri behar duten aldea erabakitzerakoan, titimuturrak, mingaina, ezpainak, omoplatoak edo genitalak bezala ahulagoak diren aldeak saihestu behar dituzte. Hain arriskutsuagoak ez diren eta nahi izanez gero alda daitezkeen bestelako aukerak ere badaude (adibidez: arropa edo kaltegarriak ez diren itsasgarriak).
7. Piercing-a jarri behar duten gorputz-atala ongi garbitu eta desinfektatzea ezinbestekoa da.



8. Piercing-a jarri ondoren oso garrantzitsua da behar bezala zaintzea orbaintzeko denboran, bera lau eta zortzi bitartekoa izan daiteke.
9. Piercing-a ukitu baino lehen eskuak garbitu behar dituzte beti.
10. Orbaintzeko denbora bukatu arte ez dute piercing-a kendu behar. Bestela, egindako zuloa berriz itxiko da.
11. Orbaintzeko denbora zailtasunaren bat gertatuz gero (zauria infektatzen dela esaterako) sendagilearengana jo behar dute.

## 10.- ZEIN KASUTAN SAIHESTU BEHAR DUTE PIERCING BAT IPINTZEA?

- Oro har, gaixotasun edo infekzioren bat izatekotan ez dute ipini behar, izan ere, egoera hauek defentsak murriztu ohi dituzte (sistema immunologikoa), eta ohi baino baxuago egoten.
- Dermatitis, akne edo orbain keloideak izateko joera dutenean<sup>3</sup>.
- Udan, itsasoaren urari eta baita igerilekuetakoari ere, gorputzaren izerdia gehitzen baldin bazaio infekzioak gertatzeko arriskua handitzen da.
- Adin txikikoa izatekotan.
- Haurdun egotekotan.
- Herpes, garatxoak edo azalaren bakterio-infekzioren bat izatekotan, izan ere, kasu hauetan infekzioa hedatu daiteke.
- Psoriasi edo piercing-a jartzen duten gunean gerta daitezkeen bestelako lesioaren bat dagoenean.
- Aknearen aurkako tratamendua berriki hartu dutenean (isotretinoina), izan ere, normalak ez diren orbainak ager daitezkeelako.
- Koagulazioaren aurkakoak hartzen dutenean, odol-alterazioak dituztenean edo jaiotzetiko bihotzeko gaixotasunak dituztenean.
- Desoreka psikologikoak eta nortasunaren aldaketak dituztenean.

**Odol-emaeleak diren edo izateko asmoa dutenek jakin behar dute piercing-a jarri ondoren urtebetez odola emateko aukera ez dagoela.**



<sup>3</sup> Orbain keloideak: orbain anormalak dira (atrofiatuak), erliebedunak (handituak) eta gorri eta morearen arteko kolorea dutenean.